

## **KONTROL MOZIOA**

### **PENTSIONISTEK URTARRILAREN 30EAN DEITURIKO GREBA OROKORRAREN AURREAN EGINDAKO ESKAERAK DIRELA ETA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko urtarrilaren 22an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta osatzen duten sindikatuek (ELA, LAB, Steilas, ESK, Hiru, CNT eta CGT), pentsiodunen elkarteek eta beste eragile sozial batzuek greba orokorrera deitu dute urtarrilaren 30ean "prekariatatearen" kontra eta "lanpostu, pentsio eta bizitza duina" aldarrikatzeko.

Eragile hauen ustez, azken hamarkadan lan baldintzek eta pentsioek "okerrera" egin dute. Horren aurrean, "beharrezkoa da jauzi kualitatiboa egitea lan baldintza, pentsio eta bizitza duin baten aldeko borrokan". Grebaren helburua da gaur egun eragileok —hala nola, pentsiodunek, langileek, feministek eta ekologistek —dituzten "borrokek bat egitea, krisiaren aitzakiatan kendu dizkiguten eskubide sozialak eta lan arlokoak berreskuratzea aldarrikatuz".

Eusko Jaurlaritzak 2019an argitaratutako behar sozialen inguruko inkestak eta Donostia Sustapenak egindako hiriko barometroak eragile hauen tesia indartzen dute: pobrezian bizi dira gero eta pertsona gehiago, langileak eros ahalmena galtzen ari dira, langabeziaren kronifikazioa 45 urtetik gorako pertsonen artean, soldata eta pentsio arrakala...

Donostiaren kasuan, Alderdi Ederreko Pentsiodunen Plataformako kideek hilabeteak daramatzate pentsio eta bizitza duin baten aldeko borrokan. Astelehenero ikusi ditugu udaletxe aurrean haien aldarrikapenak egiten eta hainbat eskaera luzatzen Udal Gobernuari. Haien artean, 2019ko martxotik, hiriko emakume pentsionisten pobrezia inguruko diagnostikoa egiteko eskaera dago.

Hain zuzen ere, EAEko hamar pentsionistetatik lauk 735 euro baino gutxiagoko pentsioa jasotzen dute hilabetero eta, kasu gehienetan emakumezkoak dira. Gipuzkoan, DSBE diru laguntza kobratzen dutenetatik % 25 pentsionistak dira eta hirutik bi, emakumezkoak. Donostiaren kasuan, 2019ko datuek diote 3.313 pertsonak jasotzen dutela DSBEa; 1.250 pentsionistak dira eta horietatik % 63,28 emakumezkoak. Udal diru laguntzen kasuan ere (GLLak) errealitate hau errepikatzen da.

Batzordean delegatua interpelatu dugunean aipatu digu emakume pentsionisten inguruko diagnostikoa ez dela egin, ardura duen teknikaria bajan dagoelako, eta talde honen ustez udal langileen egoerak ezin du baldintzatu proiektuei ematen zaien lehentasuna.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

## **KONTROL MOZIOA**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako emakume pentsionisten pobreziaren inguruko diagnostikoa lehenbailehen egin dezala, Alderdi Ederreko Pentsionisten Plataformak 2019tik egin duen eskaerari erantzuna emanaz.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 24an

Olaia Duarte López  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia